



Arartekoaren 2022R-1520-21 Ebazpena, 2022ko urriaren 10ekoa. Horren bidez, Ondarroako Udalari gomendatu zaio berariaz ebatz dezala zergadunak 2018ko abenduaren 28an aurkeztutako, eta idatziz berretsitako (2020ko irailaren 16an eta 2021eko apirilaren 9an), eskaeraren edukia, erantzun formalik eman ez delako.

Aurrekariak

1. Kexagileak kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan bere desadostasuna azaltzeko; izan ere, 2018ko abenduaren 28an, Ondarroako Udalari eskatu zion azken lau urteetan Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren (OHZ) kontzeptuan igorri zizkion ordainagiriak berrikusteko.

Zergaduna babestutako alokairu bidez merkaturatzeko Alokabide sozietate publikoari lagatako etxebizitza baten jabea zen eta da.

Kexan, kaltetuak adierazi zuen sozietate publiko horrekin sinatutako gozamen-kontratua berritzean Alokabidek jakinarazi ziola OHZn ordaindu beharreko kuotan %50erainoko murrizketa izan zezakeela.

2013. urtetik Ondarroako udalerrian OHZ arautzen duen ordenantza fiskalak honako hau ezartzen du: *“Zergaren kuota osoaren ehuneko 50(e)ko hobaria jasotzeko eskubidea izango dute Eusko Jaularitzaren abenduaren 30eko 316/2002 Dekretuak araututako «Etxebizitza Hutsen programaren» barruan lagatzen diren ondasun higiezinak, edo beste foru edo udal izaerako programa batzuetan latakak”*. Kaltetuak zerga-onura hori aitortzeko eskatu zuen, eta, ondoren, 2018ko abenduaren 28an, ordaindutako azken lau ekitaldiei dagokienez, atzeraeraginez aplikatzeko eskatu zuen.

Eskaeraren erantzunik jaso ez zuenez, eskaera formalki berriro egin zuen baina orain arte toki-erakunde horrek ez du bere eskaeraren edukiari buruzko erantzunik eman, berariaz eta arrazoiak emanez.

2. Erakunde honek interesdunaren arazoa azaldu zion Ondarroako Udalari, eta egindako eskaera formalki konpontzeko eskatu zion. Erantzunik eman ez zenez, erakunde honek informazio-eskaera bat igorri zuen, eskaeraren edukiari buruzko erantzun arrazoitu bat lortzeko. Adierazi behar da, erakunde honek Ondarroako Udalean hainbat kudeaketa bultzatu dituen arren, toki-erakunde horrek oraindik ez





duela zergadun horren eskaera berariaz aintzat hartu eta ebatzi, eskaera erregistratu zenetik ia lau urte igaro diren arren.

Gogoetak

1. Kexa horrek jasotzen du herritar hori ez dagoela ados Ondarroako Udalak hark egindako eskaera bati buruzko berariazko ebazpenik eman ez izanarekin. Eskaera hori denboran luzatzen ari da, arrazoirik gabe eta modu onartezinean.

Hori dela eta, Arartekoak Ondarroako Udalari gogorarazi behar dio administrazio publiko guztiek berariaz erantzun behar dietela interesdunek egindako eskabide guztiei. Zehazki, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua honela ebatzi beharra ezartzen die administrazio publikoei: *“Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua.”*

Ondorioz, administrazioak izapide egokia eman behar die herritarrek aurkezturiko idazki guztiei, bizkor, arin eta eraginkortasunez; harik eta behin betiko ebazpena eman arte edo espedientea bukatu arte.

Arartekoak askotan salatu du zein kaltegarria den administrazioaren isiltasuna, babesik gabe uzten dituelako herritarrak, zeren eta ez baitakite administrazioak haien asmoari buruz zer egin nahi duen eta horrek galarazi egiten baitie erantzunaren balizko edozein berrikuspen.

Herritarren erreklamazioei administrazio erantzunik ez ematea administrazioaren funtzionamendu anormala da, eta halaxe dela agerrarazi behar du Ararteko erakundeak.

Prozedura izapideak existitzearen eta herritarrei benetako erantzuna ematearen bermea Espainiako Konstituziotik eratortzen da (103.1 eta 105 artikulua). Ezin dugu ahaztu administrazio publikoak legearen eta zuzenbidearen arabera jardun behar duela beti.

Azken urteotan garrantzi handia hartu du administrazio ona izateko eskubideak, eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunaren 41. Artikuluan jasotzen da. Zuzenbide hori, Europar Batasuneko bada ere, Europar Batasuneko kide diren herrialdeen ordenamenduetan txertatzen ari da eta horrela, gure auzitegietan





aintzat hartzen eta aplikatzen ari dira. Horrela gertatu zen, adibidez, Auzitegi Gorenaren 2015eko azaroaren 20ko epaian (errek.: 1203/2014).

Administrazio ona izateko eskubideak berariaz aitortzen duen berme nagusietako bat da ebazpenak arrazoizko epean jasotzeko eskubidea.

Administrazio txarreko kasu bat da artikulu horietatik ondorioztatzen den arreta-eginbearra haustea, eta agerian uzten du administrazioak bere jardunean errespetatu behar duen printzipio orokor bat ez dela bete: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3.1.a) artikuluan positibizatuta dagoen herritarrei emandako benetako zerbitzua; horren arabera: *“Administrazio publikoek objektibotasunez egiten dute lan interes orokorraren alde. Halaber, efikazia, hierarkia, deszentralizazio, deskontzentrazio eta koordinazioaren printzipioei begira dihardute, erabat errespetatuta Konstituzioa, legeak eta zuzenbidea.*

Beren jarduketan eta harremanetan honako printzipio hauek zaindu beharko dituzte:
a) Herritarrei zerbitzu eraginkorra eskaintzea...”

4/1999 Legeak honako hau aitortzen zuen zioen azalpenean: *“silencio administrativo es una patología del procedimiento ajena al correcto funcionamiento de las administraciones”* . Baita honako hau ere: *“esa situación de falta de respuesta por la administración, siempre indeseable, nunca puede causar perjuicios innecesarios al ciudadano”*.

Hala, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearen arloko legeriaren azken helburua da herritarrek administrazioaren berariazko erantzuna lortzea eta, ahal dela, ezarritako epean lortzea. Horretarako, beste zenbait neurriren artean, berariaz ebazteko betebeharra ezartzen die herri-administrazioei.

Horri dagokionez, gogoratu behar da denboraren joan-etorriak ez duela desagerrarazten administrazioak berariazko erantzuna nahitaez eman beharra.

2. Era berean, Arartekoak adierazi behar du Ondarroako Udalak erakunde honekin duen lankidetzak eskasa. Azpimarratu behar da Otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak— 23. artikuluan ezartzen duela euskal herri-administrazioek, lehentasunez eta premiaz, eskatzen zaizkien datu, agiri, txosten edo azalpen guztiak eman behar dituztela.





Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu Ondarroako Udalari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Berriaz ebatzi zergadunak 2018ko abenduaren 28an aurkeztutako, eta idatziz berretsitako (2020ko irailaren 16an eta 2021eko apirilaren 9an), eskaeraren edukia, erantzun formalik eman ez delako, bai eta hartutako erabakiaren berri eman diezaiola ere.

